

Pintura eta bakea

Donostiako Udalak Bakearen
aldeko eta Giza Eskubideen
inguruan pintura lehiaketan
Eskibel Ikastetxeko bi ikasleek
Epai Mahiaren aipamena jaso
zuten

2006 Ots 19

Atsegin handiz hartu dugu
Donostiako Eskibel ikastetxeko
ikasleek azaroako azken bi asteetan
egindako lana. Donostiako Udalak
Bakearen aldeko eta Giza Eskubideen
inguruan pintura lehiaketa antolatu
zuen eta bertan parte hartu zuten

Eskibel ikastetxeko Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleek. Barru barruan dituzten kezkak eta nahiak azaltzen saiatu ziren, horretarako forma, kolore eta testurak erabiliz.

Lehiaketara 600 lan aurkeztu zirela kontutan hartuta, azpimarratzekoak dira ikastetxe donostiar honetako ikasleek lortutako sariak; 13-16 bitarteko mailan Laura Antoñanak eta Julia Cendoyak Epai Mahiaren aipamena jaso zuten. Hauekin batera, Begoña Plazak eta Ligia Lucía Lasak egindako lanak ere ikusgai izan ziren aukeratutako 50 margo lanen artean, Donostiako Lugaritz kulturunean otsailak 11 bitartean.

Lehiaketako emaitza onak bat datoz irakasleek Plastika eta Ikus Hezkuntza dituzten asmoekin: alde batetik, inguruarekiko harremanak hobetu, ikasleak hezitu, parte hartu eta mezuak bidali ditzaten. Lan talde

bat martxan dago ikasleei baliabide grafikoak, teknika plastikoak, abileziak eta tresnak erakusteko komunikazioa eta heziketa hobetzeko asmoz. Bestetik, baloreak eta jarrerak bideratu eta prozesuak suspertu, horrela ikasle bakoitzak barruan duen onena eman dezan.

Eskibel Ikastetxean ikasleen osoko heziketa bermatu nahi da, giza-balore, adimen-balore eta balore moralak, zein bere neurrian, aintzat hartuta. Harlo hau praktiko eta zehazki bizitzen irakasten zaie: zintzotasuna, lanzaletasuna, alaitasuna, lagunkortasuna ...

Baita ere irakasten zaie lana hondo egina beraien burua eta gizartea hobetzeko medio dela.

Bizitzaren ikusmolde kristauak bere eginkizunean eragintzen du. Kristau ikasbideko oinarriekin ados eta kontzientzien askatasuanarekiko

*begirune osoz betetzen da eginkizun
hori.*

*Besteak beste, Euskal Herriko
hizkuntz eta kultur ezaugarriak ere
Eskibelgo heziketa egitarauetan barru
daude.*

(www.eskibel.com)

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/pintura-eta-bakea/](https://opusdei.org/eu-es/article/pintura-eta-bakea/) (2026
Mar 10)